

Opengela: zure auzoa berroneratzen duen bulegoa

BIRTUOSS PROIEKTUA
LAYMAN'S REPORT

SARRERA

Eraikin-eskalatik auzo-eskalara igarotzen den eredua

Eraikinak birgaitzea prozesu konplexua da herritarrentzat, eta are gehiago zaurgarritasun handiko auzoetan egiten bada. LIFE BIRTUOSS proiektua bide hori errazteko sortu zen, hurbileko bulegoak sortuz, ‘opengelak’ deiturikoak (‘open’ = ‘irekia’ ingelesez). Prozesu osoan zehar auzotarren bidelagun izateaz gain, proiektuak eredua finkatu eta erreplikatu du: bi pilotu izatetik 25 bulego izatera Euskadiko 28 auzotan. Eta begirada aldatu du eraikin-eskala gaindituz, auzo osoan esku hartzeko; horrek onura nabarmenak ekarri ditu bertako gizartean, hirigintzan, ingurumenean eta gobernantzan.

Eskuinean, Euskadin azken urteotan martxan jarritako ‘opengela’ bulegoetako batzuk.




Abiapuntua: bizitegi-parke zaharkitua

Euskadin, etxebizitza gehienak duela 40 urte baino gehiago eraiki ziren. **Bizitegi-eraikinen ia % 70 1980. urtea baino lehen eraiki ziren**, energia-eraginkortasuneko, irisgarritasuneko eta erosotasuneko irizpideak gaur egungoen aldean oso bestelakoak zirenean. Ondorioz, etxebizitza askok isolamendu eskasa, energia-kontsumo handiak eta irisgarritasun-oztopoak dituzte, eta horrek auzokoen eguneroko bizitza zailtzen du.

Kalkuluen arabera, **300.000 etxebizitza inguruk premiazko birgaitzea behar zuten**, eta egoera hori bereziki agerikoa da kalteberatasun sozial eta ekonomiko handiagoa duten auzoetan. Aldi berean, **Euskadiko biztanleriaren % 9 inguru pobrezia energetikoko egoeran edo arriskuan zegoen**, eta horrek zaildu egiten du etxean erosotasun-baldintza egokiak mantentzea.

Erronka hau bereziki garrantzitsua da kanpoko energia-mendekotasun handia duen eta energia-kontsumoa eta eraikinei lotutako emisioak murrizteko helburu handiak dituen komunitate batean. Hala ere, eraikin bat birgaitzea prozesu konplexua izan ohi da bizilagunen komunitateentzat, erabaki tekniko, administratibo eta finantzarioei aurre egin behar baitiete.

**Euskadiko bizitegi-eraikinen ia
% 70 1980 baino lehen
eraiki ziren**



Euskadiko etxebizitzaren batez besteko adinaren mapa, udalerriaren arabera (2024. urtea), Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Kalteberatasunaren Inbentarioan jasoa.

Errealitate horren aurrean sortu zen **Opengela** programa, HIROSS4all (Horizon 2020k finantzatua) izeneko lehen proiektu baten lanarekin batera. **BIRTUOSS** 2023an sortu zen, hiri-berroneratze eredu hori indartzeko eta zabaltzeko helburuarekin, bizilagunei, komunitateei eta administrazioei laguntzen dien hurbileko bulego-sare batean oinarrituta.

BIRTUOSS proiektua (Opengela)

BIRTUOSSek etxebizitzaren birgaitzeari auzoaren eskalatik heltzearen eraginkortasuna erakutsi du. Eraikinez eraikin jardun ordeztu, proiektuak bizitegi-multzo osoetan modu koordinatuan esku hartzearen alde egin zuen, energia-hobekuntzak, irisgarritasuna, gizarte-laguntza eta herritarren parte-hartzea konbinatuz. Ikuspegi honek baliabide publikoak hobeto aprobetxatzeko eta pertsona gehiagorengana iristeko aukera ematen du. Eta hurbiltasun-bulegoa funtsezko tresna bilakatzen da eginkizun horretan.

Proiektuak *living lab* bat ere jarri zuen martxan Bilboko Irala auzoko **TorreUrizar** bizitegi-multzoan, eta bertan, auzokideekin batera, benetako irtenbideak probatu eta baliozkotu ziren. Eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzeak, igogailuak instalatzeak, kanpoko espazioak berritzeak eta etxebizitzaren erosotasunaren gaineko jarraipenak aukera eman zuten hiri-berroneratze integralaren onurak lekuan bertan egiaztatzeko.

Aldi berean, proiektuan zehar, Opengela sarea lehen bi esperientzia pilotuetatik **Euskadiko 28 auzotan banatutako 25 hurbiltasun-bulego izatera pasatu zen**, eta Eusko Jaurlaritzaren, udalen eta erakunde espezializatuen arteko lankidetzaren egitura egonkor bat sortu zuen. Hala, hiri-berroneratzeari eskala handian ekiteko modu berri baten oinarriak ezarri zituen proiektuak.

25

Opengela
bulegoak

28

Euskadiko auzoak

84%

herritarren
atxikimendua

175,98

M euroko inbertsioa

4.888

pertsona onuradunak



EMAITZA NAGUSIAK

Amurrioko (Araba) Goikolarra auzoaren aireko ikuspegia, hiria berroneratzeko prozesuaren azken faseetan.

Euskadi osoko auzoak eraldatzen dituen sarea

BIRTUOSSen lorpen handienetako bat Opengela eredua euskal lurralde osoan zabaldutako errealitate bihurtzea izan da. Lehenengo esperientzia pilotuak egin ziren Bilbon eta Eibarren, lehenik, eta Durangon eta Lasarte-Orian, ondoren. Orain, hurbileko 25 bulego dituen sare bihurtu da, eta Euskadiko 28 auzotan lan egiten du, hiri-berroneratzea herritarrei hurbilduz eta birgaitze-prozesu osoan auzo-komunitateei lagunduz.

Askotariko ezaugarriak dituzten auzoetan daude bulegoak, baina xede bera dute: birgaitze energetikoa erraztea, etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzea eta hiri-ingurune inklusiboagoak, jasangarriagoak eta erresilienteagoak eraikitzen laguntzea.

Sarearen hedapenak eragin nabarmena izan du. Proiektuak iraun bitartean, 175,98 milioi euro mobilizatu ziren auzoak berroneratzeko eta eraikinak birgaitzeko inbertsioetan (155,68 milioi jatorri publikokoak eta 20,30 milioi funts pribatukoak), 4.888 pertsonari zuzenean eman zitzaien onura, eta urtean 25.480 MWh-ko aurrezpen energetikoa lortu zen, urtean 4.924 tona KOH isurtzea saihestuz. Proiektuan zehar, halaber, 38 lanpostu zuzen sortu dira gutxienez.

Gainera, ereduak herritarren inplikazio handia lortu zuen, eta bulegoetatik bultzatutako birgaitze-prozesuekiko batez besteko atxikitze-tasa % 84 -koa izan zen.

Bulegoak ‘neurrira’: egoera desberdinetarako zazpi eredu

Ez daude bi auzo berdin. Batzuek komunitate-lanean ibilbide luzea egin dute, beste batzuk lehen urratsak ematen ari dira. Udalerri batzuetan, hiri-berroneratzean espezializatutako taldeak daude, eta beste batzuetan, berriz, laguntza tekniko handiagoa behar da. Auzoen tamaina, etxebizitza kopurua, gizarte-kalteberatasun mailak edo eraikinen egoera ere aldatu egiten dira batetik bestera.

Hori dela eta, BIRTUOSSen emaitza garrantzitsuenetako bat **Opengela bulegoetarako zazpi gobernanta eredu identifikatu eta definitzea** izan da, lurralde errealitate desberdinetara egokituta. Kasu guztietarako irtenbide bakarra aplikatu beharrian, proiektuak erakutsi du hiri-berroneratzeak hobeto funtzionatzen duela bulegoaren antolaketak auzo bakoitzaren behar espezifikoari erantzuten dienean.

Eredu guztiek filosofia bera dute: administrazioen arteko lankidetzak, laguntza tekniko espezializatua eta herritarrengandik hurbil dagoen arreta. Hala ere, arduren banaketa aldatu egin daiteke. Kasu batzuetan, lidergoa nagusiki udalarena da; beste batzuetan, hiri-berroneratzean espezializatutako erakundeak dira bulegoaren eguneroko koordinazioaz arduratzen direnak.

Ikuspegi malgu honi esker, Opengela sarea Euskadi osora zabaltzeko ahal izan da, eraginkortasunik galdu gabe, eta auzo bakoitzak bere eraldatze-prozesua bultzatzeko egiturarik egokiena izatea bermatu da. Esperientziak erakusten du gobernanta ez dela bigarren mailako alderdia, birgaitzea benetan pertsonengana iristeko eta denboran mantentzeko gakoetako bat baizik.



Pasaia Opengela



Zer aldatu da auzokoentzat?



Etxebizitza erosoagoak

Isolamendu termiko hobe eta barne-tenperatura egonkorragoak.



Irisgarritasun handiagoa

Igogailuak instalatzea eta oztopo arkitektonikoak kentzea.



Auzo jasangarriagoak

Energia-kontsumo txikiagoa eta CO₂-emisio gutxiago = klima-aldaketarekiko erresilienteagoak diren auzoak.



Hurbileko laguntza

Birgaitze-prozesu osoan laguntzen duten hurbileko bulegoak.



Espazio publiko berriak

Berdegune gehiago, irisgarritasuna eta hiri-kalitatea.



Herritarren parte-hartze handiagoa

Auzotarrek beren inguruneari buruzko erabakietan parte hartzen dute.



Tresna berriak sortzea

BIRTUOSSen ondare garrantzitsuenetako bat hiri-birgaitzea planifikatzen, kudeatzen eta bizkortzen laguntzen duten tresna berriak sortzea da. Helburua izan da Opengela sareak metatutako esperientzia etorkizunean erabiltzen jarraitu ahal izango diren tresna praktiko bihurtzea.

Horietako nagusia **Opengela Ibilbide-Orria** da. Planifikazio-tresna honek Euskadiko etxebizitza-parkearen ikuspegi globala eskaintzen du, eta lehenago zer eraikin eta auzotan jardun behar den identifikatzen laguntzen du, bai eta irabazi handienak non lor daitezkeen eta inbertsio publiko eta pribatuak nola lehenetsi behar diren identifikatzen ere. Horri esker, administrazioek epe luzerako birgaitze-estrategiak diseina ditzakete.

BIRTUOSSek **eraikinaren pasaporte**a ere sustatu du, jabeen komunitateei beren higiezinaren birgaitzea urratsez urrats planifikatzeko aukera ematen dien dokumentu pertsonalizatua. Jardun guztiei batera aurre egin beharrean, pasaporteak ibilbide-orri progresibo bat ezartzen du eraginkortasun energetikoa hobetzeko, emisioak murrizteko eta eskura dauden laguntzak hobeto aprobetxatzeko.

Horri gehitu behar zaizkio Opengela bulego guztietarako garatutako **dokumentazio, kudeaketa eta jarraipeneko protokolo komunak**. Prozedura hauek talde teknikoen lana errazten dute, administrazioen arteko koordinazioa hobetzen dute eta auzotarrek zerbitzu homogeneo eta kalitatezkoa jasotzea bermatzen dute, bizi diren auzoa edozein dela ere.



Opengela Ibilbide-Orria: Euskal etxebizitza-parkea birgaitzeko plangintza estrategikoa.

Eraikinaren pasaporte: Ibilbide-orri pertsonalizatu bat jabe-komunitate bakoitzarentzat.

Protokolo komunak: Sareko bulego guztietarako prozesu eta dokumentazio partekatuak.

Helburu komun bat: Epe luzera hiri-berroneratzea erraztea eta bizkortzea.

Garrantzitsuena: herritarren parte hartzea

Opengela ereduak pertsonak erdigunean jartzen ditu. Hori dela eta, birgaitze-prozesu guztiek auzotarren parte-hartze zuzena izan dute. Auzotarrek, beren eraikinei buruzko erabakietan ez ezik, espazio publikoari, irisgarritasunari, berdeguneei eta auzoaren bizi-kalitatean zuzenean eragiten duten beste alderdi batzuei buruzko erabakietan ere parte hartu dute.

Neurtu daitezkeen emaitzak

Herritarren parte-hartzeak isla zuzena izan zuen lortutako emaitzetan. TorreUrizarren **4.789 kontsulta pertsonalizatu, 2.078 komunikazio informatibo eta 21 lan- eta erabaki-batzar** egin ziren auzo-komunitatearekin.

Jarduketek etxebizitzaren konforta ere hobetu zuten. Neguko hilabeteetan, batez besteko barne-tenperatura **18,8 °C-tik 20,4 °C-ra igo zen**, eta etxe eroasoagoak eta energetikoki eraginkorragoak sortu ziren.

Herritarren balorazioa ere positiboa izan zen: TorreUrizarren Opengela bulegoaren % **81eko gogobetetze orokorra** lortu zuen, eta ehuneko hori % **84ra** iristen da emandako arretarekin eta laguntzarekin lotutako alderdietan.

TorreUrizar: hiri laborategi bizia

Ikuspegi honen adibiderik onena **TorreUrizar** da, proiektuaren hiri-laborategi bihurtu zen **25 atari eta 264 etxebizitzako** bizitegi-multzoa. Hemen, irtenbideak herritarrekin batera diseinatu, eztabaidatu eta baliozkotu ziren, bilera, lan-batzorde eta auzo-batzarren bidez.

Prozesu honi esker, hobekuntza zehatzak bultzatu ahal izan ziren, hala nola igogailuak instalatzea eta oztopo arkitektonikoak kentzea, isolamendu termikoaren bidezko eraikinen birgaitze energetikoa, instalazio fotovoltaikoak estalkietan eta plazak eta kanpoko espazioak birnaturalizatzea, Naturan Oinarritutako Konponbideekin. Gainera, **espazio komunak** eta ingurunearen ingurumen-kalitatea hobetu ziren.

**264 etxebizitza TorreUrizarreko
living lab-ean, 4.789
erantzundako kontsultak eta
auzokideei emandako
zerbitzuarekin % 84ko
gogobetetze-maila**

TorreUrizarreko eraikin-multzoaren irudiak. Eskuinean, hurbiltasun-bulegoa bisita batean eta bizilagunen bilera bat.



ETORKIZUNERAKO GOMENDIOAK

BIRTUOSSek jasotako esperientziak erakusten du hiri-berroneratzeak hobeto funtzionatzen duela auzo-mailan lantzen denean, laguntza teknikoa, herritarren parte-hartzea eta administrazioen arteko lankidetzak uztartuz. Lortutako emaitzetatik abiatuta, hiri-berroneratzea bultzatzen jarraitzeko hainbat gomendio planteatzen ditu proiektuak.

» Hurbileko bulegoak finkatzea

Hurbileko bulegoek erakutsi dute tresna eraginkorra direla herritarrei birgaitze-prozesuetan laguntzeko. Pixkanaka ezarri behar da, lurralde bakoitzaren premietara egokitutako diziplina anitzeko taldeekin eta tokiko eta eskualdeko administrazioen arteko koordinazio egonkorrekin.

» Eredu malgua mantentzea

Ez daude bi auzo berdin. Hori dela eta, hiria berroneratzeko prozesuek elementu komunak eta ingurune bakoitzaren ezaugarri sozial, urbano eta ekonomikoetara egokitzeko behar den malgutasuna konbinatu behar dituzte.

» Koordinazioa eta ikaskuntza partekatua indartzea

Administrazioen eta erakunde espezializatuen arteko lankidetzak da ereduaren arrakastaren gakoetako bat. Tresnak, esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzeak baliabideak optimizatzea eta emaitzak hobetzea ahalbidetzen du.

» Espainian eta European ereduak bultzatzea

BIRTUOSSek gomendatzen du hurbileko bulegoak tresna iraunkor gisa finkatzea, birgaitze energetikoa eta hiri-berroneratzea bizkortzeko. Horretarako, beharrezkoa da esparru arautzaile eta finantzario egonkorrak izatea, bai eta ezagutza trukatzeko eta jardunbide egokiak errepikatzeke Europako sareak indartzea ere.

Ikasgai nagusia argia da: eraikinen birgaitzeak emaitza hobeak lortzen ditu pertsonengana hurbiltzen denean, auzo bakoitzera egokitzen denean eta gobernantza sendo eta kolaboratiboan oinarritzen denean.



BIRTUOSS proiektuko kideak, Alcalá de Henareseko (Madril) azken ekitaldian



TorreUrizarreko plaza bat, auzoa berroneratzeko prozesuaren hasierako fasean.

ESPERIENTZIA PARTEKATUZ

Euskadin jaiotako eredua, European partekatua

Emaitzen hedapena BIRTUOSSen funtsezko zatia izan da. Komunikazioa Opengelaren webgunean eta sare sozialetan, dibulgazio-materialetan, auzoetara bisitaldietan, jardunaldi teknikoetan eta nazioko zein nazioarteko kongresuetan parte hartzean oinarritu da. Ekintza horiei esker, eredua aplikatu den auzoetatik askoz harago iritsi da.

BIRTUOSSen esperientzia Europako erreferentziazko foroetan ere aurkeztu zen, hala nola EUSEW, EPAH, Housing Europe, ManagEnergy edo EU Peers, eta European birgaitze energetikoa eta hiri-berroneratzea nola azkartu eztabaidatzen lagundu zuen.

BIRTUOSSen hedapena zenbakietan

19.507

web erabiltzaile

87.541

bisitatutako orriak

955

jarraitzaile
LinkedInen

10

informazio-
buletinak

70

ekitaldi, kongresu
eta jardunaldi

112

agerpen
komunikabideetan



opengela

OFICINAS REGENERACIÓN URBANA



Co-funded by
the European Union



opengela.eus/birtuoss



Opengela



Opengela9201



Opengela

EUSKO JAURLARITZA

ETXEBIZITZA ETA
HIRI AGENDA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
AGENDA URBANA



Bilbao Etxebizitzak
Viviendas Municipales

ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA



EDE
FUNDAZIOA

GAIA

aclima
Bosque Environment Cluster



GNE FINANCE
High Impact Investments

cíclica
SPACE - COMMUNITY - ECOLOGY



gabinete seis



FEDARENE

GBCE

GREEN
BUILDING
COUNCIL
ESPAÑA



zabala
INNOVATION